



## “Badut morboa bainujantzia ipintzen dudanean”

Jokin Etcheverria | Turista profesionala

Korroskadak eta bidaiak egiten ditu,  
gastu guztiak pagatuta, noski.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Jokin Etcheverriak utzia

**BURP! Barka, bazkaldu berritan nator...**  
Lasai, lasai, eta on egin.

**Bask Underground Report. Saio berritzailea, prefosta. Edo freakya?**

Barre egiten dugu, jolasten gara fikzioa kokatzera mundu errealean... Horretarako nahiko berritzailea da. Freakya? Ez dut ulertzen hitza, ingelesetik dator, ezta?

**Arrazoi duzu, ez dakit nor den freakyago: BUR-Pen agertzen direnak, BURP ikusten dugu... barka, dutenak edo BURP egiten duzuenok.**

Saioa hasi dudanetik anitzetan entzun dut freaky hitza. Freakya baldin bada zure berezitasuna eta gustua asumitzea, espero dut freakya naizela. Luxua da gure mundu globalizatuan.

**Ikusle freak... jesus, fidelak behintzat badituzue. Hirugarren denboraldia hasi berri duzue.**

Berritasunak ikusiko dituzue: Euskadin mugituko gara gure Burponetarekin BURP espiritu hedatzeko, eta jaiak egingo ditugu hilero LeBukowskyn, taldeak eta performanceak zuzenean.

**A ze pagotxa. Chiloé programarekin bezala, ezta?**  
Erantzungailu automatikoa piztuko dut: bai, bai, suertea da!

**Aizu, baskongadoek pagatzen dizkizugula bertako bidaiak, e...**

Espero dut pozik zaretela saioarekin, zuen turista profesionala naiz. Eta ez baldin baza-

rete pozik, espero dut zuen zergak ordaindu behar ez izatea. Ez zait iristen!

**Egia da Maider Egues joatean zerbait galdu zuela saioak...**

Dependitzen du norentzat: esan didate badudala morboa bainujantzia ipintzen dudanean.

**Baten batek pentsatuko du, zertan da frantses hau hemen aurkezle?**

Iparraldeko aurkezlea ukitu exotiko bezala ikusten ahal da.

**Hegoaldeko idealizatuta dugu Iparralde. Eta alderantziz?**

Hastapenean hegoaldera joaten nintzen goi-zero tortillak jateko, eta orain nire herriko croissanten falta dut, egia da.

**Plazer lurtarrak ETB3-ko izarra izateko!**

Izarra? Bosgarren operazioa egin dut sudurra laburtzeko, eta limusina dut zain Kate Mossekin zerbait hartzeko. Baina azkenean Erramun Martikorenak deitu dit ea txuleta bat jango dugun.

**Telebista korearrak ere elkarrizketatu zaitu eta!**

Bai, banbu oihan batean. Jendea pozik da gure taldea errezibitzeaz haien herria aurkezteko eta ni ere pozik naiz Euskal Herriari buruz hitz egiteaz.

**Estilo bat sortu duzue behintzat: dena oso funny, oso funky, oso smily.**

Peace, unity, love and having fun. ■